

BILBOK BAT EGIN DU ARRAZA-BEREIZKERIA MOTA GUZTIAK DESAGERRARAZTEKO NAZIOARTEKO EGUNAREKIN, “ZUBIGILEAK” KANPAINA INSTITUZIONAL BATEN BIDEZ

Aukeratutako leloarekin, Bilboko Udalak keinu bat egin nahi die elkar ezagutzea, bizitako esperientzietara hurbiltzea, harreman berriak eraikitzea eta arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borroka partekatua errazten duten herritarrei.

- Arraza-bereizkeria mota guztiak desagerrarazteko Nazioarteko Egunean, martxoaren 21ean, musika, zinema, eztabaidak eta antzerkia egongo dira Bilbon.

(Bilbon, 2022ko martxoaren 15ean).- Bilboko Udalak bat egin du, aurrean ere, **Arraza-bereizkeria mota guztiak desagerrarazteko Nazioarteko Egunarekin**. Egun hori martxoaren 21ean (domeka) egingo da eta, Udalak **kanpaina instituzional** bat antolatu du, egun seinalatu horretako xedeekin bat datozen jarduerekin.

Hain zuzen ere, eta bertan bizi diren pertsonen elkarreraginerako mekanismoak ezartzen dituen komunitate baten garrantzia azpimarratze aldera, Bilboko Udaleko Lankidetzeta eta Bizikidetzeta Sailak aurtengo ediziorako lelo hau aukeratu du: **“Zubigileak”**. **“Lelo horrekin keinu bat egin nahi zaie elkar ezagutzea, bizitako esperientzietara hurbiltzea, harreman berriak eraikitzea eta arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borroka partekatua errazten duten herritarrei”** adierazi du Itziar Urtasun Lankidetzeta eta Bizikidetzeta Saileko zinegotziak.

BILBOKO ZUBIAK

Oraingo honetan, **sentsibilizazio-kanpainaren irudia Kike Infame ilustratzaile bilbotarrak egin du, eta Udalak 2022. urte osorako eta arrazakeriaren, kultura-aniztasunaren, babeslekuaren eta pertsona migratzaileen arloan egindako lan kontzeptual baten parte da**. Hain zuzen ere, Bilboko zubiak ditu ardatz, “pertsonak igarotzen diren lekuaren metafora gisa, banakako nahiz taldeko jarrera eta mobilizazioen planoan”, azaldu du Udalak.

Arraza-bereizkeria mota guztiak desagerrarazteko Nazioarteko Eguna Nazio Batuen proposamen bat da, *“balio duena sentsibilizatzeko, kontzientziazteko eta atentzioa emateko; seinalatzeko badela konpondu gabeko arazo bat, gai garrantzitsu bat, gizartean konpontzeke dagoena; hartara, lortu nahi da, sentsibilizazio horren bidez, administrazioek jardun dezaten eta neurriak har ditzaten edo herritarrek hala exijitu diezaieten beren ordezkari”*. Arrazakeria eta diskriminazioa prebenitzeko lehentasun horri heltzeko, Bilboko Udalak Bilbo, [Kulturarteko Uria III. Udal Plana](#) du. Plan horrek prebentziozko sentsibilizazio-programak garatzeari eman dio lehentasuna, diskriminazio-jokabide larrienen oinarrian dauden aurreiritziak eta estereotipoak osatzeko.

Sentsibilizazio-kanpainaz gain, Bilboko Udalak, efemeride horren harira, **hainbat ekimen sozial eta kultural jarri ditu abian, eta urian arlo horretan diharduten beste erakunde batzuekin lankidetzan aritu da:**

- **ZINE-FORUMA: DESCENDENTS, ZINEMA IKUSEZINAREN JAIALDIAREKIN LANKIDETZAN**

Martxoaren 24an (eguna), goizez eta arratsaldez, DESCENDENTS dokumentalaren inguruko bi zine-forum hartuko ditu Bilborockek, Zinema Ikusezinaren Jaialdiaren azken edizioan kulturartekotasunaren kategorian saritua izan zen lana. Judit Arandak —filmaren zuzendarietako batek— eta Moviment Afrobanyolí Social elkarteko Assa Macalouk hartuko dute parte proiektio bietan.

Goizeko saioa 11:00etan izango da eta hezkuntza-komunitateko eta esku-hartze sozialaren alorreko entitateei zuzenduta egongo da. Saioa Bilbao (UPV-EHUren Hezkuntza Fakultatea) arduratuko da foruma dinamizatzeaz.

→ Behar besteko edukiera bermatzeko, izena aurretiaz eman beharko da, mezu elektronikoa bidalita inmigracion@bilbao.eus helbidera, izen-abizenak, telefono-zenbakia eta erreferentziako entitatea adieraziz.

Arratsaldeko saioa 18:30ean izango da, eta sarrera librea izango da; nerabe eta gazteei zuzenduta egongo da, bereziki. **Immigrazio Kontseiluaren gazte taldearen bost kidek dinamizatuta egongo da —metodologia landu dute Immigrazioko eta Berdintasuneko udal taldeekin—.**

Topaketa horrekin, **Bilboko Udalak eta KCD garapenerako gobernuz kanpoko erakundeak lankidetzari ekin diote, ZINEMA IKUSEZINAREN-FILM SOZIALAK JAIALDIAN kulturartekotasunaren kategorian saritutako lanek komunitatean eragin handiagoa izatea sustatzeko.** Helburua da zubi-lana egitea jaialdiak azaroan saritutako filmen eta ikusle bilbotarren artean: ekitaldi bat antolatzea, saritutako lanak berriro proiektatzeko eta film horiek eragin dezaketen eztabaidan sakontzeko.

Proposamen pilotu hori planteatzen da ZINEMA IKUSEZINAREN Jaialditik sortutako ekintza gisa, eta Bilboko Udalarekin lankidetzan.

- **ANTZERKI SOZIALA: “Las latinas son...”**

Martxoaren 26an (zapatua), 19:00etan, Bizkaia Aretoan **“Las latinas son...”** taularatuko da. Antzerki sozialeko lana da, Abya Yaleko (Amerikako kontinentea) hainbat herrialdetako emakume migratzaileek Teatro Sin Papeles konpainian sortutakoa. Lan honekin, beren migrazio-esperientziak ikusarazi eta herritarrak sentsibilizatu, eta esperientzia horien inguruko narratiba berriak proposatu nahi dituzte. Ez da ohiko antzezlan bat, biltzeko, entzuteko, elkarrekin sortzeko eta erresistentziarako espazioa ere bada. Izan ere, lanak

tresna bat izan nahi du, altuago, ozenago, seguruago hitz egiteko eta, azkenean, entzunak izateko.

Bilboko Udalak EHUren Esperientzia Gelekin, Ongi Etorri Errefuxiatuak erakundearen Zine Batzordearekin, CNAAE eta FIREKUTZEN-ekin batera egin du lan hau, eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza dauka.

Antzezpeneren ondoren, elkarrizketa sustatuko da ikusleekin. Sarrera doakoa izango da.

ATZERRITARTASUNARI BURUZKO SAIOA AHOLKU SAREAREKIN

Marxtoaren 31n, Bilboko Udalak informazio-saio bat eskainiko du atzerritartasunaz, arlo horretan izaten diren zalantzei erantzuten laguntzarren, batez ere urian bizi diren migratzaileen kolektiboarentzat.

Biltzen Integraziorako eta Kulturen arteko Bizikidetzarako Euskal Zerbitzuak antolatu du tailerra, Bilboko Udalaren Immigrazioko Kontseiluarekin batera (UIK), eta Deustuko udaltegian egingo da, 18:00etatik aurrera.

Saioa irekia da herritarrentzat. Parte hartu nahi dutenek baieztatu egin beharko dute, immigracion@bilbao.eus helbidera mezu bat bidaliz.

Aurten beste 3 informazio-saio egingo dira maiatzean, irailean eta azaroan (Errekaldeko, San Frantziskoko eta Basurtuko barrutietako udaltegietan).

BESTE ERAKUNDE BATUK ANTOLATUTAKOAK:

Martxoaren 19an (barikua), **Bilborock Aretoak Damba Arrazakeriaren aurkako Jaialdia** hartuko du. Kartela Betto Snay Angolako raperoak diseinatu du, eta Frank T, Marina Lays, Gara Freedom, Arrano Pertxa eta Gun To The Flow artistek parte hartuko dute, besteak beste.

Horrela, bertaratzen direnek ezberdintasunetik eta kultura-aniztasunetik sorkuntzan aritu diren artistez gozatzeko aukera izango dute. Artista horiek uriko kultura-gune batean biltzen dira, San Frantzisko auzoan, eta elkarbizitzaren erreferente dira. Sarrerak salgai daude dagoeneko Power Recordsen, Bilbon, bertara joanda, edo Entradium webgunean.

Betto Snay artistak ibilbide luzea egin du, ia 20 urtekoa, musikan, betiere aniztasunaren eta integrazioaren ikuspegitik. Bere karrera San Frantzisko auzoari lotuta egon da beti, eta, beraz, Bilborock aretoak balio erantsia du berarentzat eta bere ibilbide musikala jarraitu dutenentzat.

Martxoaren 25ean (barikua), 17:00ean, Munduko Medikuak (Euskadiko) elkarteak arrazakeriaren aurkako jardunaldi bat antolatu du BBK KUNA aretoan. Bertan, kiroletako -

haur eta nerabeen kirolean, profesional edo afizionatua, banakakoan edo taldekakoan-arrazismoaren eta arraza-bereizkeriaren aurkako borrokan hausnartzeko eta aurrera egiteko balioko duten mahai tematiko bi izango dira. Informazioa eta izena ematea: mediacioneuskadi@medicosdelmundo.org.

Baieztatutako parte-hartzaileen artean, honako hauek daude: Auri Lorena Bokesa Abia, saskibaloiko eta atletismoko denboraldiak aldi batez uztartu zituen kirolari espainiarra; Abdessamad Oukhelfen BenHaddou, U23 Europako Kros Txapelketan brontzezko domina lortu zuena; Jaël-Sakura Bestué, 4 x 100 erreleboko zilarrezko domina 23 urtez azpiko Europako Txapelketan; eta Elsa Mouthe, streetlifting-eko atleta.

Bertan izango dira, halaber, Guillem Balboa Buika politikaria, AESAN, EHUko Ikasle Antiarrazisten Elkarte, eta CNNAE Euskadi, Afrikako komunitate beltzaren eta Euskadiko afrikarren ondorengoen elkarte. Jarduera honetan, gehienez 50 lagunentzako lekua egongo da eta bi ordukoa izango da.

SARE SOZIALAK:

- **BILBAO UDALA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)
- **BILBAO CIUDAD INTERCULTURAL:** [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#)

BILBAO SE SUMA AL DÍA INTERNACIONAL CONTRA LA DISCRIMINACIÓN RACIAL CON LA CAMPAÑA INSTITUCIONAL “PERSONAS QUE CONSTRUYEN PUENTES”

- Con el lema escogido, el Ayuntamiento bilbaino quiere reconocer el importante papel de la ciudadanía que facilita el conocimiento mutuo, el acercamiento a las experiencias vividas, la construcción de nuevas relaciones y la lucha compartida contra el racismo y la xenofobia.

- La Villa conmemorará el Día Internacional Contra la Discriminación Racial, 21 de marzo, con música, cine, debates y teatro.

(Bilbao, a 15 de marzo de 2022).- El Ayuntamiento de Bilbao se suma, un año más, a la conmemoración del **Día Internacional Contra la Discriminación Racial**, que tendrá lugar el próximo **lunes 21 de marzo**, a través de una **campana institucional y mediante la realización de actividades alineadas con los fines de esta fecha señalada**.

Precisamente, y en aras de destacar la importancia de una comunidad que establece los mecanismos para la interacción de las personas que la habitan, el lema escogido, por el Área de Cooperación y Convivencia del Consistorio de la capital vizcaína, para esta nueva edición es **“*personas que construyen puentes*”**. **“Es un guiño a los y las ciudadanas que facilitan el conocimiento mutuo, el acercamiento a las experiencias vividas, la construcción de nuevas relaciones y la lucha compartida contra el racismo y la xenofobia”**, ha manifestado Itziar Urtasun, Concejala de Cooperación y Convivencia.

LOS PUENTES DE BILBAO

En esta ocasión, la imagen de **la campaña de sensibilización** la ha realizado el **ilustrador bilbaino Kike Infame**, y es parte de un **trabajo conceptual realizado por el Consistorio para todo el año 2022 y sus diferentes hitos internacionales en materia de racismo, diversidad cultural, refugio y personas migrantes**. En concreto, **se centra en los puentes de Bilbao**, **“como metáfora del lugar por el que transitan las personas en el plano de las tomas de posición y movilización individual y colectiva”**, han explicado desde el Ayuntamiento.

La celebración del Día Internacional Contra la Discriminación Racial es una propuesta de Naciones Unidas que **“sirve para sensibilizar, concienciar, llamar la atención, señalar que existe un problema sin resolver, un asunto importante y pendiente en la sociedad para que, a través de esa sensibilización, las administraciones actúen y tomen medidas o para que la ciudadanía así lo exija a sus representantes”**. Para abordar esta prioridad centrada en la prevención del racismo y la discriminación el Consistorio bilbaino cuenta con el [III Plan Bilbao Ciudad Intercultural](#), que prioriza el desarrollo de programas de sensibilización preventivos que incidan en la conformación de prejuicios y estereotipos que están en la base de las conductas más graves de discriminación.

Además de la campaña de sensibilización, en el marco de esta efeméride, **el Ayuntamiento de Bilbao ha puesto en marcha diferentes iniciativas sociales y culturales y ha colaborado con otras entidades que trabajan en este ámbito en la Villa:**

- **CINE-FORUM DESCENDENTS, EN COLABORACIÓN CON CINE INVISIBLE**

El jueves 24 de marzo, en horario de mañana y tarde, Bilborock acogerá dos cine-forums en torno al **documental DESCENDENTS**, la obra que resultó premiada en la última edición del Festival Cine Invisible dentro de la categoría "interculturalidad". Judit Aranda, codirectora del documental, y Assa Macalou, Moviment, Afrobanyolí Social participarán en ambas proyecciones.

La sesión de mañana (11:00 horas) está dirigida a profesionales de la comunidad educativa y de entidades de la intervención social. La dinamización del fórum correrá a cargo de Saioa Bilbao (Facultad de Educación UPV-EHU).

→ Para garantizar un aforo suficiente será preciso realizar una inscripción previa enviando un email a inmigracion@bilbao.eus, indicando nombre, apellidos, teléfono y entidad de referencia.

La sesión de tarde (18:30 horas) es de acceso libre y está dirigida al público en general y muy particularmente al público adolescente y joven. **Estará dinamizada por cinco personas del grupo joven del Consejo Local de Inmigración de Bilbao que han trabajado la metodología con los equipos municipales de Inmigración e Igualdad.**

Con este encuentro **el Ayuntamiento de Bilbao y KCD ONGD inician una experiencia de colaboración que tiene como objetivo potenciar un mayor impacto comunitario de la obra premiada por CINE INVISIBLE-FILM SOZIALAK en la categoría de interculturalidad.** De hecho, se pretende establecer un puente entre las películas que resulten premiadas en noviembre por el festival y el público bilbaino en un evento que permita no solo volver a proyectar la obra premiada, sino profundizar en el debate que pueda plantear.

Esta propuesta piloto se plantea como acción derivada del Festival CINE INVISIBLE en colaboración con el Ayuntamiento de Bilbao.

- **TEATRO SOCIAL: "Las latinas son..."**

El sábado 26 de marzo, a las 19:00 horas, el Bizkaia Aretoa acogerá la representación **"Las latinas son..."**. Esta obra de teatro social, creada por mujeres migrantes de diferentes países de Abya Yala (el Continente Americano) y pertenecientes a la Compañía Teatro Sin Papeles, busca visibilizar, sensibilizar y proponer nuevas narrativas alrededor de sus experiencias migratorias. No se trata de una obra teatral al uso, también es un espacio de reunión, de escucha, de co-creación y de resistencia. De hecho, la obra busca

ser un instrumento para hablar más alto, más fuerte, con más seguridad, y por fin ser escuchadas.

El Ayuntamiento de Bilbao ha programado esta obra en colaboración con el Aula de la Experiencia de la UPV-EHU, la Comisión de Cine de Ongi Etorri Errefuxiatuak, CNAAE y FIREKUTZEN, y cuenta con el apoyo del Gobierno Vasco.

Tras la representación se propiciará un diálogo con el público asistente.
La entrada será gratuita.

SESIÓN INFORMATIVA DE EXTRANJERÍA CON AHOLKU SAREA

El Ayuntamiento de Bilbao ofrecerá el 31 de marzo, una sesión informativa en materia de extranjería para resolver las dudas en este ámbito, sobre todo, de cara al colectivo de personas migradas de origen extranjero residente en la Villa.

El taller lo organiza el Servicio Vasco de Integración y Convivencia Intercultural [Biltzen](#) (Gobierno Vasco), en colaboración con el Consejo Local de la Inmigración (CLI) del Consistorio bilbaino, y se llevará a cabo en el Centro Municipal de Deusto a partir de las 18:00 horas.

La sesión estará abierta al público. Los y las interesadas deberán confirmar su asistencia enviando un correo a inmigracion@bilbao.eus.

A lo largo de este año se celebrarán otras 3 sesiones informativas que se desarrollarán en el mes de mayo, septiembre y noviembre (Centros Municipales de Distrito de Rekalde, San Francisco y Basurto).

OTRAS ENTIDADES DE LA VILLA ORGANIZAN:

Asimismo, este viernes, 19 de marzo, la **Sala Bilborock** acogerá la celebración de **Damba Festival Contra el Racismo**. El cartel lo ha diseñado el rapero angoleño Betto Snay, y lo componen artistas de la talla de Frank T, Marina Lays, Gara Freedom, Arrano Pertxa y Gun To The Flow, entre otros.

Se presenta así un encuentro en el que el público asistente podrá disfrutar de artistas que han creado desde la diferencia y la diversidad cultural y que confluyen en un espacio cultural urbano, el del barrio de San Francisco, todo un referente de convivencia. Las personas interesadas en acudir ya pueden adquirir las entradas de manera presencial en Power Records, Bilbao, o en la web [Entradium](#).

A Betto Snay le precede una larga trayectoria de casi 20 años trabajando en la música desde la perspectiva de la diversidad y la integración. El desarrollo de su carrera siempre ha estado unido al barrio San Francisco, por lo que la sala Bilborock tiene un valor añadido para él y para quienes han seguido su trayectoria musical.

Para el 25 de marzo, viernes, **Médicos del Mundo Euskadi**, a las **17:00** ha organizado una jornada antirracista en BBK KUNA con dos mesas temáticas que servirán para reflexionar y avanzar en la lucha contra el racismo y la discriminación racial en todo tipo de deportes, pasando por el deporte infantil y adolescente, hasta el profesional o aficionado, se practique de manera individual o por equipos. Información e inscripción en: mediacioneuskadi@medicosdelmundo.org.

Entre las y los participantes confirmados destacan Auri Lorena Bokesa Abia, una deportista española que compaginó durante un tiempo las temporadas de baloncesto y atletismo; Abdessamad Oukhelfen BenHaddou, medallista de bronce en el campeonato de Europa de Cross U23; Jaël-Sakura Bestué, medallista de plata con el relevo 4 x 100 en el Campeonato de Europa Sub-23; y Elsa Mouthe, atleta de Streetlifting.

También formarán parte del encuentro el político Guillem Balboa Buika, AESAN, la Asociación estudiantil Antirracista en la UPV/EHU, y CNNAE Euskadi, Comunidad negra africana y afrodescendiente en Euskadi. La actividad tendrá un aforo máximo de 50 personas y se extenderá dos horas.

REDES SOCIALES:

- **BILBAO UDALA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)
- **BILBAO CIUDAD INTERCULTURAL:** [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#)